



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Ez ditugu mehatxuak onartzen, eskubideak exijitzen ditugu

Orozkoko Galletas Artiach enpresan kaleratutako emakumeen aferaren inguruan LAB sindikatuko **Idazkaritza Feministaren irakurketa:**

Emakumeek idatzi dute Artiach gaileren istorioa. Gure gozamenerako gailetak egiten, lanean urteak eta urteak daramatzaten emakumeak.

Emakumeak aspaldian sartu ziren Artiachek irekitako aurreneko fabriketan, 1907ko inguru horretan. Ez zen gauza erraza izan, orduan hasiak zirelako emakumeak espazio publikoan sartzeko, gizonen betetzen zuten eremu produktiboan parte hartzen. Apurketa bat zen emakumeei ezartzen zitzaizkien zaintzaile paperarekin. Ezin dugu ahaztu langile klaseko emakumeek beti egin dugula lan, eta, ondorioz, betidanik aldarrikatu, exijitu eta borrokatu ditugu gure eskubideak patronalaren aurrean. Eta askotan, zoritxarrez esan behar dugu, baita gure lankide gizonen artean ere.

Egindako borrokengatik dira ezagunak, hain zuzen ere, Artiacheko "galleterak". Eta ez ziren bakarrik, mende hasieran pila ziren Bizkaiaren eraikuntza parte hartzen zuten emakumeak gogorak bezain ezezagunak zirelako lanetan: zirgariak, mehatzariak, ikatzarekin lan egiten zutenak, belak josten zituztenak, bakailaoketariak... lan baldintzak borrokatzea berezko ezaugarria zen lan hauetan, baldintzak ezberdinak zirelako emakumeek egiten zituztelako, emakumeek betetzen zituzten enpresariak gizon helduena baino merkeagoa zen esku lan ez kualifikatua bilatzen zutelako.

Jakina denez, emakumeak direnean borrokatzen dutenak, berehala ahazten direla borroka horiek, agudo isiltzen direla, segituan kentzen zaiela balioa.

Orain 2019an gaude, eta Artiachen emakumeek bizi duten egoera aurreko mendekoena dirudi, antza gehiegi du. Gauzak asko aldatu dira, mugimendu feministak egin duen borrokari esker neurri batean, eta, hala izanda ere, pasa den mendeko egoerak mantendu nahi dituzte batzuek.

Gaur, 2019an, badago emakumeak XX. mendean bezala erabili ahal direla pentsatzen duenik. Esku lan merkea gailera pentsatzen duenik, badagoela gu kontratatzea, botatzea, kaleratzea edota edozein ordutan lanerako deitzea. Pentsatzen dute badutela gu pertsonak ez bagina bezala tratatzea eta posible dutela eskubiderik gabeko gizakiak bagina erabiltzea.

Zein lan eskubideetaz hitz egiten dugu legeek enpresaren esku uzten badute gurekin nahi dutena egitea, gure bizitzan jabe egitea? Non dago jokabide duina honetan guztian? Posible da 17 urteetan 750 kontratu egitea, bata besteari atzetik, eta enpresan ezer ez



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

gertatzea? Aurrera jarraitzea aberasten? Eta bitartean, gainontzekoak txikilin gailetak kafean sartzen eta gozaten, gailetak egin dituzten emakumeek bizi dituzten baldintzen ingurua ezer jakin gabe?

Ez dugu onartuko behin behineko kontratuen kateatze eredu hau, ETTen bitartez kudeatzen dena eta antzinatasuna ez aitortzea beste helbururik ez duena. Kontratu hauekin prekaritatea egonkortu eta betikotu egiten da, alarma egoera bizitzea dakar, telefonoa eskutan beti noiz deituko lanera joateko. Ez dugu onartuko emakume hauen bizitza horrela mugatzea, ez dugu onartuko euren bizitza ezin antolatu ibiltzea. Zeren horrela da, enpresak kontrakoa pentsatzen eta desiratzen badu ere, emakume hauek euren bizitza dute, ez dira jaio beraien aginduak betetzeko. Ez dira jaio multinazional batean gailetak egitera mugatzeko.

Gure galdera da: halako zenbat kaleratze eman dira enpresa honetan?

Ez dugu nahi guzti hau ahanzte, ez dugu nahi hasierako Artiachen aritu ziren emakumeek egin zuten borroka, egin zituzten grebak (lehena 1917an) eta lortu zituzten garaipenak ezerezean geratzea.

Artiachek ehunka emakume kaleratu ditu 100 urte hauetan eta gaur da eguna, inolako lotsarik gabe, berdina egiten jarraitzen duela. Inork ez die kargua hartzen euren jarrera matxista, misogino eta baztertzaila bada ere. Nahikoa da! Orduko eta oraingo emakume langileengatik, kaleratze gehiagorik ez! Iruzurrezko kontraturik ez!

Emakumeen lan eskubideak betetzea exijitzen dugu. Ez gara erabili eta botatzen diren langileak. Gaur behar gaituen eta bihar ostikoa ematen digun sisteman ez dago eskubiderik, gure kontratuak ezin dira eredu honen men egon, ez diogu men egingo burumakur eta isilik nahi gaituen sistemari. Emakumeon behin-behinekotasun eta partzialitatearen kontratazio politketan oinarritzen diren enpresa politikekin bukatzea exijitzen dugu.

Ez dugu onartuko lan munduan gure lekua bigarren mailakoa eta menpekoa izatea. Eskubide osoko langileak gara eta ez dugu onartuko kaleratzearen mehatxuarekin erantzutea eskubideak aldarrikatzen ditugun bakoitzean. Ez ditugu mehatxuak onartzen, eskubideak exijitzen ditugu.

Bilbon, 2019ko azaroaren 5ean